

horretako profesionalen prestakuntzan lehentasuna ematea hirugarren sektoreko irabazi asmorik gabeko erakundeei, erabilgarritasun publikoko erakunde gisa kalifikatuei, menpekotasun-egoeran dauden pertsonen eta ezgaitasunak dauzkaten pertsonen eskubideak sustatzeko lanean ibilbide luzea daukatenei.

**11.20.** Zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoaren gaineko araudiak egokitzea eta kasu hau barne hartzea: dagokion lurralde-esparruan baliabidea badagoen arren, garraio egokirik ez izateagatik, zentroa urrun dagoelako edo kasuan kasuko behar berezietara egokitutako zentrorik ez dagoelako ez denean komeni pertsona onuraduna lekuz aldatzea.

**11.21.** Premiazko beharrei erantzutera edo arintzera bideratutako neurrien ezarpenean sakontzea.

**11.22.** Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluak 2011ko otsailaren 28an onetsi zuen [Arreta Goiztiarreko Eredua Euskal Autonomia Erkidegorako](#) agirian jasotako proposamenak eta aurreikuspenak gauzatzeko neurri egokiak martxan jartzea. Horretarako, nahitaezkoa izango da egokiak diren baliabideak sortu eta egokitzea; sistema soziala, sanitarioa eta hezkuntzaren arteko koordinazioa lortzeko bide aproposak sortzea; arreta 6 urtera arte luzatzea bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak hornitzea; Araba eta Gipuzkoako kasuetarako araudi espezifikoa onestea, eta, Bizkaiaren kasuan, dagoen araudia egokitzea. Hori guztia prebentziora, gabezien arriskuak goiz antzematera eta neska-mutilen gaitasun fisikoa, mentala eta soziala ahal beste garatzea lortzea.

## **12. Sektore publikoan eta pribatuan familiako eta laneko bizitza bateratzea sustatzera bideratutako jarduerak bultzatu eta indartzea**

Familiarekiko jarrera arduratsua duten enpresei babesia ematea, menpekotasun-egoeran dauden pertsonak zaintzarekin bateragarriak diren lanaldiak ezartzea, bateratzera bideratutako diru-laguntzak ematea eta egiten duten zaintza-lana behar bezala ziurtatzen duten pertsonen lan-zentrorira fisikoki joatea ordezkatzeko ahalbidetzen duten teknologiak erabiltzea dira, besteak beste, helburu horretarako planteatzen diren neurri batzuk.